

|   |   |       |
|---|---|-------|
| <b>abantzatu</b><br>'aurrera joan'                          | «Besteak igogailura itzultzen ziren bitartean, Pello eta Anne herenilezko tapizdun korridoretik azkenean <b>abantzatuz</b> , bolizko bi atetara hurreratu ziren.»   | (113) |
| <b>abegikor</b><br>'harrera goxoa duena'                    | «Egongela zabala eta <b>abegikorra</b> zen, espaziuntziko besaulki batzuk, mahai handi bat eta armairu txikia...»   | (90)  |
| <b>agi denez</b><br>'dirudienez'                            | « <b>Agi denez</b> , lau merkatal astruntzi eta bi gerrauntzi zeharo hondatuta gertatu dira...»   | (27)  |
| <b>aharra</b><br>'liskarra'                                 | « <b>Aharrak</b> gezurra estaliko zuela uste zuen.»   | (19)  |
| <b>ahitu</b><br>'nekatu'                                    | «Goizalde hartan itsaso bare-bareak ez zuen zailtasunik suposatu hiru bidaiari <b>ahitu</b> horientzat.»  | (67)  |
| <b>ahuntzaren gauerdiko eztl</b><br>'lan erraza'            | «...hautagai egokiena topatzea ez zen <b>ahuntzaren gauerdiko eztl</b> ...»   | (33)  |
| <b>ainguraketa</b><br>'aingura ezartzeko ekintza'           | «—Biochipen <b>ainguraketa</b> eta burmuinezko zelula kortikalez daukazun guztia, mesedez.»   | (18)  |
| <b>alafede</b><br>'bai horixe!'                             | «...eta horko hologramaldiak. Eden ustez. bikainak <b>alafede!</b> »  | (22)  |
| <b>aldizkargidun</b><br>'itzali eta biztu egiten den argia' | «Laser izpiek, berde eta moreak, pasiloan bide koloretsu eta <b>aldizkargiduna</b> sortzen zuten.»  | (11)  |
| <b>alfeizar</b><br>'leihoaren behealdeko zatia'             | «Areto Nagusia kutsu barrokoz sobera apaindua, XVI.eko urrezko alfonbra pertsiar erraldoiak leihoen <b>alfeizarretik</b> zintzilika...»                             | (83)  |
| <b>alimale</b><br>'izugarri handia'                         | «Airean, hari ikustezinez eskegita, robot baten irudi erraldoia zegoen, projekzio holografiko <b>alimale</b> honi zientzilariek pieza berriak jartzen zizkioten...» | (62)  |
| <b>amatatu</b><br>'itzali, itsungi'                         | «Halako batean, bere lana Emilyrekin jarraitzea erabaki zuen eta gero Shiva <b>amatatu</b> , honela azterkapena oztopatzen zuelarik.»                               | (51)  |
| <b>amildu</b><br>'iraulka erori'                            | «Pello! —oihukatu zuen neskak, lehengusuaren besoetara <b>amiltzen</b> zelarik.»  | (55)  |
| <b>ankerki</b><br>'gogorkeriaz arituz'                      | «Ez!! Aitor ezazu! Non dago Pello? —itaundu zion <b>ankerki</b> zutitu berri eta ordura arte ixilik egondakoak.»  | (116) |
| <b>antigualeko</b><br>'zahar-zaharra, zaharkitua'           | «Nahiko modaz pasatutako robot hura 65.ean aberats batzuek soilik zeukaten, baina 80.ean <b>antigualeko</b> bat zen.»   | (13)  |
| <b>antzinate</b><br>'aspaldi handiko garaia'                | «Intelligentziaburuaren langelak <b>antzinate</b> faltsu batera eramaten zuen bisitaria...»   | (26)  |
| <b>apatx</b><br>'animalien behatz arraildua'                | «Gelako espazioa gehien bat gorrien eskuetan zegoen —edo <b>apatxetan</b> hobeto azaltzeko—...»   | (74)  |
| <b>arranopola</b><br>'harridurazko esaera'                  | « <b>Arranopola!</b> Bost eta erdiak dira!»   | (21)  |
| <b>arras</b><br>'oso, guztiz''                              | «Eta gezurrik nimiñoenaz konturatzen zen, beraz <b>arras</b> adi egon eta barne kontrol handia eduki behar.»  | (19)  |
| <b>asaldatu</b><br>'norbere onetik atera'                   | «Hiru minutu eskas geratzen zirelarik, Pelloren deiadarra entzun zuten <b>asaldaturik</b> ...»  | (79)  |
| <b>asmakari</b><br>'asmatutako gauza'                       | «Intelligentzia bost minutu barru hemen egongo da eta Eden <b>asmakaria</b> gura dute.»   | (58)  |
| <b>atalase</b><br>'hasiera'                                 | «Konjuntzio-gelara sartzeko hirukotetik bik bederen kilikadura <b>atalasea</b> gaintitu behar dute...»  | (126) |
| <b>azpikari</b><br>'azpikeriazko jokoa'                     | «Sergeik eraman behar du <b>azpikari</b> hau.»  | (29)  |
| <b>azterkapen</b><br>'azterketa'                            | «Halako batean, bere lana Emilyrekin jarraitzea erabaki zuen eta gero Shiva <b>amatatu</b> , honela <b>azterkapena</b> oztopatzen zuelarik.»                        | (51)  |

| Hitza - Esanahia                                    | Testuingurua   | Orrialdea |
|---|--|-----------|
| <b>azti</b><br>'etorkizuna igartzen dakiena'        | «Biochipak kokatzeak <b>aztien</b> lana zirudien; halabaina bigarren txinpantzearekin helbururaino iritsi zen.»  | (23)      |
| <b>barreiatu</b><br>'desagertu'                     | «...baina hasierako poza eta alaitasuna pixkanaka-pixkanaka <b>barreiatu</b> egin ziren.»  | (31)      |
| <b>bateko</b><br>'Kartetan balio gehien duena'      | «Ezta pentsatu ere, baditugu <b>bateko</b> batzuk ezkutuan...»   | (58)      |
| <b>baurre</b><br>'piztien hotsa, orroea'            | «Bat-batean munstroaren <b>baurrea</b> , ezabatu eta gelditu egin zen: Annek zenbait oihu bota eta gero...»  | (72)      |
| <b>bederik ere</b><br>'behintzat, bederen,          | «Espeziearen arrakasta ziurtzat eman zitekeen, <b>bederik ere</b> , aurretik aurkituak izatekotan.»  | (112)     |
| <b>behapuntu</b><br>'jopuntua'                      | «Zorakeria hutsa da! Gainera FIren <b>behapuntuan</b> zaude...»  | (38)      |
| <b>behatu</b><br>'begiratu, so egin'                | «Ukondoan jo zuten eta bat-batean esnatu zen, alboan Tanakaren irribarrean, haren urraturiko begiek <b>behatu</b> zioten, eta (...) non zegoen gogorarazi zion...» | (11)      |
| <b>behaztopo</b><br>'oinak tratatzea'               | «Abenduaren 24an <b>behaztopo</b> gehienak oraindik gaintitu gabe eta atsedena behar zuelako ustetan...»   | (39)      |
| <b>beiradura</b><br>'beiraz egindako arte lana'     | «...eguzki izpiek Kolonia-ko katedralekoak izandako <b>beiradura</b> miragarriak zeharkatuz mahai biribil handi bat jotzen zuten.»                                 | (84)      |
| <b>bere kautan</b><br>'bere golkorako, bere artean' | «Pasilotik azkar zebilen bitartean, <b>bere kautan</b> honela mintzatzen zen...»   | (34)      |
| <b>bertze</b><br>'beste'                            | «Etxea edozein suomitarren eraikuntza bezalakoa, esfera arrodatzaila da, momentu oro Suomiko <b>bertze</b> leku batera garraiatzeko gertu izanik.»                 | (125)     |
| <b>beta</b><br>'astia'                              | «Hausnartzeko <b>betarik</b> gabe, Shivaren ezpainetatik entzun zuen erantzuna...»   | (35)      |
| <b>betoker</b><br>'begirakuna oker duena'           | «Hasieran <b>betokerra</b> ematen bazuen ere, ez zen hala; izan ere, begi bat hipertrofiatuta zeukan, bestea txikiegia izanik.»                                    | (88)      |
| <b>betsein</b><br>'begininia'                       | «...iris, betsein eta begigloboan azterketa zehatz-mehatza burutzeko.»   | (26)      |
| <b>birao egin</b><br>'hitz iraingarria bota,        | «Mila galaxia! Kaka! Arraio! <b>–birao egin</b> eta lur jota geratu zen mahaian jezarrita.»  | (56)      |
| <b>boli</b><br>'haginetako alderdi gogorrena'       | «Besteak igogailura itzultzen ziren bitartean, Pello eta Anne herenilezko tapizdun korridoretik azkenean abantzatuz, <b>bolizko</b> bi atetara hurreratu ziren.»   | (113)     |
| <b>bozatu</b><br>'isilarazi'                        | «Komunikatuak <b>bozatuta</b> daude. Hemen ez dago demokraziarik...»   | (47)      |
| <b>bulkada</b><br>'bultzada'                        | «Molekula honek ez zuen inolako oztoporik animaliaaren nerbio- <b>bulkadak</b> eramateko.»   | (12)      |
| <b>burusi</b><br>'oheetako ehun lodia'              | «Ohe baten gainean eta <b>burusi</b> termikopean, naufragoaren gorputz geldoaren barnean robot positroniko aurreratuenak ingurua eta ondoko lagunak                | (63)      |
| <b>dagit</b><br>'egiten dut'                        | «Ez dakit, benetan, zin <b>dagit</b> –negarka aitortu zuen Edek, belauniko zegoela.»   | (116)     |
| <b>dastatu</b><br>'zaporea aztertu, probatu'        | «Sukaldera pasatu eta gero, te beroa <b>dastatu</b> zuten.»  | (91)      |
| <b>deblauki</b><br>'bat-batean'                     | «...beheko agerrunean etxola kaskar bat topatu zuten <b>deblauki</b> ; arreta handiz eta gelditu ondoren, ingura-mingura zebiltzan hirurak...»                     | (86)      |
| <b>demontre</b><br>'deabru, arraio'                 | «Baina, ze... <b>demontre...?!</b> »   | (23)      |
| <b>derizt</b><br>'deitzen naiz'                     | «Ez dut izenik, P7AT izendatu ninduten sortzeko momentuan, baina 'Lanbro' <b>derizt</b> , lanbroa bezain lasaia eta iraunkorra bainaiz...»                         | (89)      |

|  |   |       |
|--|---|-------|
| <b>desarratu</b><br>'suarmak tiro egin'              | «...azken aienea entzutean bere itxura nazkagarria ikusi zuten Anne eta Edek, azken honek <b>desarratu</b> berri zuen pistola oraindik eskuan zeramala.»      | (88)  |
| <b>destatu</b><br>'armak apuntatu'                   | «...Edek pistola hartu, <b>destatu</b> eta burrukaren emaitzaren zain gelditu zen.»   | (87)  |
| <b>digante</b><br>'erraldoia'                        | «Intelligentziakide madarikatuen atzaparretan erortzeko arriskua, mamu <b>digantea</b> iruditu zitzaien, hala eta guttiz ere txikiegia...»                    | (77)  |
| <b>dundu</b><br>'urdina'                             | «Hiru irudi mamutiarrak telepatikoki komunikatzen hasten direnerako ibilgailuaren leihatila ireki berritik lauki <b>dundua</b> agertzen zaie...»              | (124) |
| <b>egitamu</b><br>'egitasmoa'                        | «...txokolate eta bainilazko zaporea dastatzen zuen bitartean berriz bere <b>egitamutan</b> murgildu zen...»  | (14)  |
| <b>ehundura</b><br>'egitura, egikera'                | «Edek irribarrez eta harro hartu zuen zilindroa, eta papera eskuztatu zuen bere <b>ehunduraz</b> ohartuz.»  | (12)  |
| <b>eite</b><br>'molde edo forma'                     | «...pozaren pozez adierazi zien <b>eite</b> bananatu eta irribarretsua zuen izakiak.»   | (91)  |
| <b>ekidin</b><br>'kaltea eragozteko neurriak hartu'  | «...kontrol postua <b>ekiditeko</b> inguru txikia ematea besterik ez zen behar.»  | (68)  |
| <b>ekoizpena</b><br>'produkzioa'                     | «Gero Harlanek material berrien sorkuntza eta <b>ekoizpena</b> ikasten ihardun zuen...»   | (34)  |
| <b>ekortu</b><br>'zatiz zati arakatu'                | «Hiruzpalau pertsona zeuden aurrean; argi berdeak gorputza txit arin <b>ekortzen</b> zuen goitik behera.»   | (104) |
| <b>eltxo</b><br>'odola zurruoatzen duen              | «...argitasunak leunki musukatzen zuen une hartan kristaleko goialdeko txokotik barneratzen zen <b>eltxo</b> .»   | (32)  |
| <b>eragilea</b><br>'eraginkorra'                     | «Federakundeko Inteligentzia oso <b>eragilea</b> zen, eta ondorengo segunduetan gertatutakoak nabarmenki erakutsi zuen.»                                      | (22)  |
| <b>eri</b><br>'gaisoa'                               | «Hiru pantailek ebakuntzaren aldagaiak erakusten zituzten eta <b>eria</b> prest zegoela alboko ohetilan...»   | (52)  |
| <b>eriden</b><br>'idoro, aurkitu, topatu'            | «...kixote antzera, bakarrik <b>erideten</b> , bakartasun beltzean lan egiten...»   | (20)  |
| <b>erlanztu</b><br>'distiratu'                       | «Materia urriko gela handian argi itsugarriak hormak ferekatzen ditu, eta <b>erlanzturiko</b> ibilgailu nimiñoa jaso ondoren, handitze prozesua hasten da...» | (123) |
| <b>erlats</b><br>'ahots ilun edo zakarra'            | «Agure zimelduari mintzo <b>erlatsa</b> zerion ezpain lodikoteetatik:...»   | (101) |
| <b>erots</b><br>'zalaparta, zarata'                  | «Koloretasuna ere, <b>erotsaren</b> parean, zoragarria.»  | (9)   |
| <b>errai</b><br>'barruko organoak'                   | «Bikotea hurbildu eta eseri egin zen, hasierako beldurrak oraindik haien <b>erraietan</b> iraun arren.»   | (114) |
| <b>errainu</b><br>'argi-izpia'                       | «Ezbaiairen <b>errainua</b> isladatu zen neskaren aurpegian: une hartan, Pellok begi bat ireki eta irribarre gaiztoa agertu zuen.»                            | (68)  |
| <b>erran</b><br>'esan'                               | «Barrura, barrura, zeuen etxean zaudete – <b>erran</b> zien Lanbrok.»   | (90)  |
| <b>erreplikante</b><br>'sintesi bidez molekular      | «...bata Susumo Tanakari, gizagibel <b>erreplikantea</b> lortzeagatik: hepatozito lerro zelular batzuetatik eta injinerutza genetikoa dela medio...»          | (12)  |
| <b>eugenesiko</b><br>'hondare genetikoa hobeturik'   | «Beldur izugarriak kateatu zuen Ulianoven burua. Izaki <b>eugenesikoak</b> aurkitzekotan..., berria plazaratuko balute...»                                    | (75)  |
| <b>ezbai</b><br>'zalantza'                           | « <b>Ezbaiairen</b> errainua isladatu zen neskaren aurpegian: une hartan, Pellok begi bat ireki eta irribarre gaiztoa agertu zuen.»                           | (68)  |
| <b>ezgauzatasun</b><br>'egokitasun eza, balio falta' | «...Intelligentziaren <b>ezgauzatasuna</b> nabaria zela uste zuelarik, batez ere Gudalostearekin parekatzean.»  | (96)  |

|   |  |       |
|---|--|-------|
| <b>fara-fara</b><br>'haizean hegaka'                | «Bandera erraldoia <b>fara-fara</b> eta himno trumoisua amaitzeko.»  | (61)  |
| <b>fite</b><br>'bizkor, berehala'                   | «Aulki anatomikoan jezarri bezain <b>fite</b> mahaiko zirkulu horia eskuz ukitu eta Shivaren ahots omnipresenteak geldiro agurtu zuen...»                        | (35)  |
| <b>garagar</b><br>'labore mota'                     | «...hasierako usain sarkorrari uzta aurreko <b>garagarraren</b> usaina zerraion eta segundu batzuk geroxeago desagertua zen.»                                    | (52)  |
| <b>garden</b><br>'inolako zikinkeriarik ez duena'   | «Astruntzia arin eta ixil urrundu zen eta ibilgailu pneumatikoa hartu zuen unibertsitaterantz.; hodi <b>gardenetik</b> zehar hiriarri begiratu zion.»            | (13)  |
| <b>geriza</b><br>'itzala'                           | «Zeharo lanpeturik zebilen eta ez zen konturatu horman eskegita, bere doktore diplomaren ondo-ondoan, <b>geriza</b> txikitxo zegoenik.»                          | (36)  |
| <b>gizagibel</b><br>'gizakien gibela'               | «...bata Susumo Tanakari, <b>gizagibel</b> erreplikantea lortzeagatik: hepatozito lerro zelular batzuetatik eta injinerutza genetikoa dela medio...»             | (12)  |
| <b>goibel</b><br>'alaitasunik batere gabe'          | «...erreguka eta oso <b>goibel</b> proposatu zion Edek.»   | (36)  |
| <b>gura</b><br>'nahi, gogo'                         | «Inteligentzia bost minutu barru hemen egongo da eta Eden asmakaria <b>gura</b> dute.»   | (58)  |
| <b>gurkari</b><br>'adeitasunez lurrerantz makurtuz' | «...leku likits hartan ez zen beste edifizioetan bezala, protokolo-androiderik atera, harrera jator eta <b>gurkaria</b> emateko...»                              | (105) |
| <b>hantazino</b><br>'hantazio, harremanak izan'     | «Azken urteetako aurrerapenei esker, konputagailuen belaunaldi berria oso atsegina zen, batez ere <b>hantazinoari</b> zegokionez.»                               | (29)  |
| <b>hats</b><br>'arnasbehera'                        | «Indarrez arnasartu eta <b>hatsa</b> bota ezazu.»  | (26)  |
| <b>hausnartu</b><br>'bere artean pentsatu'          | «Trimestrearen txostena nahi du, seguraski, eta epea bost egun barru amaitu baino lehenago eskatu dit urde horek – <b>hausnartu</b> zuen Edek.»                  | (14)  |
| <b>hegi</b><br>'ertza, bazterra'                    | «Harkaitzerriko kostaldearen <b>hegi</b> mehea lanbro artean ageri zen.»   | (67)  |
| <b>helezin</b><br>'ezin ordainduzkoak'              | «Bekarien soldata ez zen oso handia eta azken urteotako robot positroniko aurreratu horiek, salneurriari begira, <b>helezinak</b> ziren.»                        | (13)  |
| <b>hepatozito</b><br>'gibekeko zelula'              | «...bata Susumo Tanakari, gizagibel erreplikantea lortzeagatik: <b>hepatozito</b> lerro zelular batzuetatik eta injinerutza genetikoa dela medio...»             | (12)  |
| <b>herabetasun</b><br>'lotsa'                       | «Erakusmahaira hurbiltzeko beldur faltsua erakutsiz, geldirik, begiak lurrean zituela <b>herabetasun</b> xaloa nabarmentzen zitzaion.»                           | (106) |
| <b>herabeti</b><br>'lotsati'                        | «...horko ordenagailuen argixkek, ñir-ñir nekezinez, bulegoko iluntasuna <b>herabeti</b> urratzen zuten.»  | (35)  |
| <b>herenile</b><br>'ehun mota, oso lehuna dena'     | «Besteak igogailura itzultzen ziren bitartean, Pello eta Anne <b>herenilezko</b> tapizdun korridoretik azkenean abantzatuz, bolizko bi atetara hurreratu ziren.» | (113) |
| <b>higikor</b><br>'mugitzeko joera duena'           | «Ikiak jende ardean nahasirik edozein momentutan ekiteko prest, kamara multifuntzional eta <b>higikorrak</b> , izpi arma izkutuak eta beste...»                  | (103) |
| <b>hipaka</b><br>'negar-zotinka'                    | «Akabatuko gaituzte, Ed. Hau zorakerioa hutsa da, etxera joan nahi dut – <b>hipaka</b> aitortu zuen Annek.»  | (65)  |
| <b>hipertrofiatu</b><br>'gehiegizko garapena jasan' | «Hasieran betokerra ematen bazuen ere, ez zen hala; izan ere, begi bat <b>hipertrofiatuta</b> zeukan, bestea txikiegia izanik.»                                  | (88)  |
| <b>hits</b><br>'zurbila, tristea'                   | «Larogei kilometro ixil eta kezkatu haietan, tutuko aldizkargiek Eden aurpegi <b>hitsa</b> argizatzen zuten, porrotaren erakusgarri.»                            | (56)  |
| <b>hurrandu</b><br>'hurbildu'                       | «Pello eta Dimitrik, Sergei B-rekin batera <b>hurrandu</b> aurretik egoeraz pittin bat eztabaidatu zuten...»   | (117) |
| <b>ibilge</b><br>'geldirik'                         | «...boitekologoak, aldiz, bigarren mailako gizakia ikusten zuen, <b>ibilge</b> , ohetxo hartan.»   | (53)  |

| Hitza - Esanahia  | Testuingurua   | Orrialdea |
|---|--|-----------|
| <b>ihardetsi</b><br>'erantzun'                              | «—Bai <b>ihardetsi</b> zion, sofan zetzan bitartean.»  | (13)      |
| <b>iheskor</b><br>'berehala desagertzen dena'               | «...Ed azkar asko konturatu zen beraien begirada <b>iheskorraz</b> .»  | (23)      |
| <b>irain</b><br>'mespresuzko hitza edo esana'               | «Gazteen kanta eta <b>irainek</b> egoera berotzen zuten: hala ere, ez zen denbora luzerik igaro Inteligentziaren untxiak agertu arte.»                       | (48)      |
| <b>irazkindu</b><br>'iruzkina egin, hitzez zerbait erantsi' | «Xaloa da gero! <b>irazkindu</b> zion Edek neskari.»   | (90)      |
| <b>itaundu</b><br>'galdetu'                                 | «Zer dela eta? <b>itaundu</b> zion.»   | (19)      |
| <b>itzarri</b><br>'esnatu'                                  | «...esan zenidanez <b>itzarritakoan</b> aurrerapenak nabaria izan beharko zuen...»   | (56)      |
| <b>izu</b><br>'beldur sakon-sakona'                         | «Aitzitik, ez zuen adimen tutik ere erakusten, eta gainera <b>izua</b> nabaria zen haien begietan.»  | (23)      |
| <b>jazarkunde</b><br>'atzetik jarraitu harrapatzeko'        | «Pello sofan etzanda zegoela, azken gertaeraz hausnartzen ari zen, nola lortu zuten alde egitea, interzeptoreen <b>jazarkunde</b> a, eta naufragorik horren» | (64)      |
| <b>jazoera</b><br>'gertakaria'                              | «Ed oso pertsona lasaia zen, eta gainera haserre bizian zebilen, azken <b>jazoera</b> zela eta.»   | (19)      |
| <b>jelatsu</b><br>'izotzezkoa'                              | «—Iztueta jauna! <b>jelatsu</b> zirudien. Hori berez aldaketa harrigarria zen...»  | (16)      |
| <b>jori</b><br>'oparoa'                                     | «...halaber, bere ondorio izugarriak, xehetasun <b>joriz</b> , gogorarazi zizkien.»  | (61)      |
| <b>kalapita</b><br>'eztabaida zaratsua'                     | «...eta halako batean, <b>kalapita</b> handia sortu zen mahai batzuk atzerago.»  | (22)      |
| <b>karel</b><br>'itsasontzietako goiko ertza'               | «Egia esateko gure helmuga ez da arras segurua, baina bai seguruenetariko bat <b>—ozenki</b> pentsatzen zuen Pellok untxiaren <b>karelean</b> eserita.»      | (61)      |
| <b>kilikadura</b><br>'kili-kiliak sentitu'                  | «Konjuntzio-gelara sartzeko hirukotetik bik bederen <b>kilikadura</b> atalasea gainditu bahr dute...»  | (126)     |
| <b>kirrizka</b><br>'zerbait apurtzearen hotsa'              | «Anneren bizkarrean adarren <b>kirrizka</b> entzun eta gero irudi argala, aurpegi bananatu atera zen agerrunean, hiruren izurako.»                           | (88)      |
| <b>konputagailua</b><br>'ordenagailua'                      | «... <b>konputagailuaren</b> aginduak berehala betetzen zituen.»   | (23)      |
| <b>kortikal</b><br>'zelulen azalari dagokiona'              | «—Biochipen ainguraketa eta burmuinezko zelula <b>kortikalez</b> daukazu guztia, mesedez.»   | (18)      |
| <b>krako</b><br>'gakoa'                                     | «...gero ordenagailuan agindu gehiago idatzi eta <b>krako</b> batzuk agertu ziren...»  | (20)      |
| <b>krokadura</b><br>'lotura, lotzearen ekintza'             | «Ikasketen ikasketaz, <b>krokadura</b> egiteko bidea aurkitu zuen.»  | (21)      |
| <b>kulu-mulu</b><br>'garrantzi gabeko gauza'                | «Andreen iridizko kapelak, 2080.eko amaiera horretako modaren azken <b>kulu-mulua</b> , dizdiratsu kulunkatzen ziren giza-marea horretan.»                   | (9)       |
| <b>kulunkatu</b><br>'batetik bestera mugitu'                | «Andreen iridizko kapelak, 2080.eko amaiera horretako modaren azken kulu-mulua, dizdiratsu <b>kulunkatzen</b> ziren giza-marea horretan.»                    | (9)       |
| <b>kuluskada</b><br>'loguraren eraginez jausika'            | «Pelloren buruaren <b>kuluskadak</b> neskaren ezuste galant hori baieztatu zuen.»  | (60)      |
| <b>labar</b><br>'haitz-ebaki bertikala'                     | «Oihana amaitzen zen lekuan larre zabala zekusatzen; aurrerago <b>labar</b> sakonak belardiari amaiera ematen zion.»   | (91)      |
| <b>langa</b><br>'ateak ixteko zurezko haga'                 | «...zalantzarik gabe, eta beraz, nahi zutenean <b>langa</b> jaso.»   | (128)     |

|  |   |       |
|--|---|-------|
| <b>larmintz</b><br>'gizakiaren larruazala'         | «Lanbroa galdu zenerako B gizakiaren aurpegia zeharo desberdina zen, sudur luze eta finagoa, begi urdinak eta <b>larmintz</b> zurbilagoa.»                      | (103) |
| <b>laru</b><br>'argi'                              | «Biochip erreplikanteak gertu zeuden disoluzio gazian, lau plakatxo <b>laru</b> ur azalean.»  | (53)  |
| <b>laxatu</b><br>'luzatu, eman'                    | «Seguraski guregan konfidantza sortzeko aldarrikapena izan da, horrela gure segurantzarako neurri zorrotzak <b>laxatuz</b> gero, Brau!! gainean izango          | (61)  |
| <b>lema</b><br>'ardura'                            | «Beno, egia esateko <b>lema</b> B gizakion eskuetan egon da eta zuek jarraitutako bidea guk aurretik jorratu dugu.»   | (121) |
| <b>leotz</b><br>'lurpeko gartzela'                 | «...argi gorri bat piztu zen eta morroia zilindro handian kapsulaturik, gorantz jaurtikia izan zen Inteligentziaren <b>leotzetarantz</b> .»                     | (104) |
| <b>lipar</b><br>'unea, eretia, momentua'           | « <b>Lipar</b> batez ixil eta hausnarkor zegoen, gero azkar eman zuen agindua...»   | (29)  |
| <b>lodikara</b><br>'lodi antzekoa'                 | «Zazpigarreneko F4 atea ikusi eta gero ezinegonean jo zuten txirrina. Andre heldu, <b>lodikarak</b> ireki zuen...»  | (106) |
| <b>losintxa</b><br>'hitz labaina, lausengua'       | «Jeneralak hori esatean keinu bat egin zien bere menpekoei hesia zabaldu eta urruntzeko, Strandentzako <b>losintxaz</b> zein zurikeriaz beteta...»              | (80)  |
| <b>lotune</b><br>'lotura'                          | «Edek ez zuen inoiz urrutiegi haldu nahi, <b>lotunerik</b> gabeko bizitza nahiago baituen.»   | (21)  |
| <b>mahuka</b><br>'besoetako jantzi zatia'          | «Alkateak <b>mahuka</b> jaso eta eskumuturrekoari hitz egin zion:...»   | (101) |
| <b>maiestate</b><br>'jainko-erregeen handitasuna'  | «...Andromeda galaxia gure begi liluratuen aurrean hedatzen da bere <b>maiestate</b> paregabea erakutsiz.»  | (123) |
| <b>mamarru</b><br>'mamorro, zomorroa'              | «Gertaera oso arrunta, dudarik gabe, edozein ikusleren ustez kontutan harturik aurrerakuntzak animalia askorekin amaitu zuela, baina ez <b>mamarruekin</b> .»   | (32)  |
| <b>miatu</b><br>'aztertu'                          | «...disco gorrian eskua jarri zuen eta konputagailuak esku horren datu guztiak memorian zeukan milioi datuarekin gonbaratutakoan begiak <b>miatu</b> zituen...» | (26)  |
| <b>mingots</b><br>'gogorki, samintasunez'          | «Ene bada! Bihotzekoa izango dut –Anne <b>mingots</b> kexatu zen.»  | (79)  |
| <b>miriada</b><br>'asko eta asko, trumilkada'      | «Ukipen <b>miriada</b> honen artean, instant batean –orduak dirudi– Piort Lurra programa sailburuarekin topatzean, Ziupek gogamen ukipena jaso eta ...»         | (127) |
| <b>mokau bat</b><br>'ahamen bat, jateko puska bat' | «Etixeratu bezain laster hirurak sofan etzan ziren, ZAP*-k <b>mokau</b> bat prestatzen zuen bitartean.»   | (49)  |
| <b>mordoska</b><br>'kopuru ez txikia'              | «...baita erlazionatzeko gaitasun psikologikoa ere; haien portaeran, halaber, aldaketa <b>mordoska</b> nabarmentzen zen...»                                     | (30)  |
| <b>motel</b><br>'mutila'                           | «Bai, <b>motel!</b> –zioen amoltsuki, automata baten aurrean zegoela ohartu gabe.»  | (31)  |
| <b>nardagarri</b><br>'nazkagarria'                 | «...herriari izurrite batek jotako gaixoak zirela esan ziotelarik, <b>nardagarrikeria</b> hura estaltzeko asmotan.»   | (69)  |
| <b>naretasun</b><br>'lasaitasun, baretasun'        | « <b>Naretasun</b> faltsu horren berri ez zeukanak, CPC*-etara iristerakoan zer edo zer jazotzen zela galtoki hartan aurkitzen zuen azkar asko.»                | (103) |
| <b>narraio</b><br>'jarraitzen natzaio'             | «Beno, na ni –hasi zen geldiro– prokarioten konportamendua aztertzeari <b>narraio</b> –egiazko planak isilpean mantenduz.»                                      | (34)  |
| <b>net</b><br>'oso, txit, erabat'                  | «Luma erako espaziuntzia apur bat biratu zen espazioan eta argi izpi <b>net</b> luze eta indartsuak jomuga osoa okertu zuen...»                                 | (95)  |
| <b>nimiño</b><br>'txiki-txikia'                    | «..hori lortuko bagenu, biochip <b>nimiño</b> horiek ez lukete inolako problemarik izango beraien barnean idatzitako programa betetzeko...»                     | (15)  |
| <b>niobio</b><br>'elementu kimikoa'                | «...chip horren oinarria ez zen ez antzinako silizioa, ezta egungo konputagailuek zeramatena, <b>niobioa</b> , baizik eta material organikoa,                   | (12)  |

| Hitza - Esanahia                                      | Testuingurua   | Orrialdea |
|---|--|-----------|
| <b>odolkoi</b><br>'odoltzalea'                        | «...altzairuzko begi angulotsuetan zeharo nabarmena zen gorrotoa eta dena deusezteko gizon <b>odolkoia</b> ren joera geldiezina.»                                | (84)      |
| <b>ohatila</b><br>'gaixoak garraiatzeko ohea'         | «Pellori hurbildu zitzaion eta <b>ohatila</b> bultzatutakoan konputagailuak martxan jarri zituen.»   | (53)      |
| <b>okitu</b><br>'erabatekoa'                          | «...gizagibel osoa lortzen zuen japoniar herabeti eta langile <b>okitu</b> horrek...»  | (12)      |
| <b>orlegi</b><br>'berdea'                             | «Maindire <b>orlegia</b> haien azpian leunki kizkurtzen zen haizearen poderioz, ibilgailuaren abiadaren eraginik gabe...»  | (81)      |
| <b>oroageri</b><br>'omnipresente, toki guztietan'     | «Nor zara? Edo zer? –ezezagun orojakile, <b>oroageri</b> , ahalguztidunaren aurrean dagoenaren beldurrez, itauntzen dio.»  | (128)     |
| <b>ortze</b><br>'zeru-sabaia'                         | «Argi dizdiratsu eta kristalezko eraikuntzak elkar borrokan, <b>ortzerantz</b> ; automata bezala bere apartamentura abiatu zen, ateko zirkulu zurian eskua jarri | (13)      |
| <b>ostu</b><br>'lapurtu'                              | «...etxeko konputailuak une hartan existitzen ziren kirurgilari-robot onenarikoen berri eman zion eta horrela Uniko laborategitik <b>ostea</b> erabaki           | (51)      |
| <b>otordu</b><br>'janaldia'                           | «... <b>otorduan</b> , esate baterako, lehengo iskanbilak eta kalapitak zeharo desagertuta zeuden...»  | (30)      |
| <b>otsein</b><br>'morroia'                            | «...bitartean <b>otsein</b> -robotak afari arina egiten zuen.»   | (62)      |
| <b>pairakor</b><br>'jasankorra'                       | «Barre ixil eta begirada <b>pairakorra</b> izan ziren Pelloren erantzun bakarrak.»   | (70)      |
| <b>pairamen</b><br>'pairatzeko ahalmena'              | «Hil duzuen hori prozesu terminalean aurkitzen zen eta aste batzuk barru hilgo zen <b>pairamenak</b> jota.»  | (90)      |
| <b>panazea</b><br>'gaitz guztiak konpontzeko'         | «Hori bai <b>panazea</b> ! Etsaiak deuseztatu eta beraien zatiki azpiatomikoetatik indarra jaso –argudiatzen zuen Liu-k.»  | (85)      |
| <b>paroxismo</b><br>'minaren maila gorena'            | «Neskaren garrasi sufriezinekin, <b>paroxismoaren</b> mugan, ezin zezaketen Eden ezintasuna gainditu...»   | (72)      |
| <b>patu</b><br>'zoria, adurra'                        | «Hala da gure <b>patua</b> ! –hits baina baketsu zioen Lanbrok.»   | (90)      |
| <b>pellokeria</b><br>'kaikukeria, zozokeria'          | «Informatikan lan egin beharrean <b>pellokeria</b> hauetan dihardute eta sekuritate sistemak alde batera utziz, ergel horiek!»                                   | (17)      |
| <b>pneumatiko</b><br>'airezkoa'                       | «Astruntzia arin eta ixil urrundu zen eta ibilgailu <b>pneumatikoa</b> hartu zuen unibertsitaterantz; hodi gardenetik zehar hiriarri begiratu zion.»             | (13)      |
| <b>positroniko</b><br>'elektroiaren antipartikulez'   | «Bekarien soldata ez zen oso handia eta azken urteotako robot <b>positroniko</b> aurreratu horiek, salneurriari begira, helezinak ziren.»                        | (13)      |
| <b>pulunp egin</b><br>'murgildu, must egin'           | «Bizi eremu batuak lipar batez –bospasei minutu suomitar– berotasun txinpartarian <b>pulunp egiten</b> du.»  | (126)     |
| <b>sardonikoki</b><br>'imintziazko irribarrea eginez' | «Agur Miosarti jeneralohia –eten zuen <b>sardonikoki</b> .»  | (81)      |
| <b>segada</b><br>'tranpa, amarrua'                    | «Ez gara <b>segadan</b> eroriko, egitaraua segituko dugu.»   | (61)      |
| <b>so</b><br>'begirada'                               | «Anne eta Ed gelaren txokotik begiratzen ari ziren; <b>soak</b> ez ziren desberdinak: neskak, lehengusua...»   | (53)      |
| <b>sobera</b><br>'gehiegi, larregi'                   | «Areto Nagusia kutsu barrokoz <b>sobera</b> apaindua, XVI.eko urrezko alfonbra pertsiar erraldoiak leihoen alfeizarretik zintzilika...»                          | (83)      |
| <b>supituki</b><br>'bat-batean'                       | «Annek beldurrezko deiadar ahula bota zuen <b>supituki</b> , haren aurpegia ikustean; gizon trokola apur bat hurreratu eta galdetu zien...»                      | (105)     |
| <b>talka</b><br>'elkarren kontra jo'                  | «246.ean, inolako <b>talka</b> nabaritu gabe igogailua gelditu eta ate mehea tupustean ireki zen.»   | (113)     |

| Hitza - Esanahia  | Testuingurua   | Orrialdea |
|---|--|-----------|
| <b>teleholograma</b><br>'erliebezko argazki telebidualia' | «Zazpi urteko ikastaldi luzea, ehundaka ikerketa gaintitu ondoren eta Dekanoaren <b>Teleholograma</b> (...), jaso eta gero, momentu horretan larri                   | (9)       |
| <b>toteldu</b><br>'silabak tratatuz hitz egin'            | «Beste aldetik ez dugu ibilgailurik eta, eta... –urduri <b>toteldu</b> zuen Edek.»   | (58)      |
| <b>trebukatu</b><br>'behaztopatu'                         | «Neketsu egongelarantz zihoan eta ZAPrekin <b>trebukatu</b> zen.»  | (13)      |
| <b>trokol</b><br>'zakarra'                                | «Annek beldurrezko deiadar ahula bota zuen supituki, haren aurpegia ikustean; gizon <b>trokola</b> apur bat hurreratu eta galdetu zien...»                           | (105)     |
| <b>trosta</b><br>'zaldiaaren ibilera'                     | «...adabakardun txit eder horren kasko gorri dizdiratsuetatik urrezko hautsa altxatzen baitzen zeruko bide esmeraldatsutik <b>trostan</b> ibiltzean.»                | (43)      |
| <b>trufa</b><br>'iseka'                                   | «Sumindurak eta izuak, jai giroa eta <b>trufa</b> ordezkatu zituzten.»   | (48)      |
| <b>txabusina</b><br>'zikintzerik babesteko jantzi         | «Egunaren garrantzia nabaria zen, ohizko amiantoizko <b>txabusinak</b> eta ikerleen aurpegi aspertuak, ez ziren lasai eta leunki korridoretik mugitzen...»           | (9)       |
| <b>txirimola</b><br>'zirimola, zurrunbilo bortitza'       | «Ixilunea, pentsamendu eza, gero <b>txirimola</b> , ekaitza: eta zenbat...?, zergatik ez...?, zergatik ezin dut nik...?, zerk geldieraziko...?, nork debekatuko...?» | (14)      |
| <b>txirri-txirri</b><br>'argindarrak egiten duen hotsa'   | «...ateko zirkulu zurian eskua jarri zuen, <b>txirri-txirri</b> elektroniko batzuk eta denbora laburra pasatu ondoren atea zabaldu egin zen.»                        | (13)      |
| <b>txundidura</b><br>'harridura'                          | «Jendearen hasierako <b>txundidurari</b> , matxinatuen aldeko zenbait oihu jarraiki zitzaion, garraisiak aurkezlearen ahotsa estali zuten...»                        | (47)      |
| <b>ukondo</b><br>'ukalondoa'                              | « <b>Ukondoan</b> jo zuten eta bat-batean esnatu zen, alboan Tanakaren irribarrean, haren urraturiko begiek behatu zioten, eta (...) non zegoen gogorarazi zion...»  | (11)      |
| <b>ulu</b><br>'otsoaren oihu zorrotz luzea'               | «Mike Koskinos jauna! Mike Koskinos jauna! –ospitaleko bozgorailuek <b>ulu</b> egin zuten.»  | (101)     |
| <b>unatu</b><br>'nekatu'                                  | «Robotak metalikoki galdetu zion Edi: — <b>Unaturik</b> zabilta, jauna?»   | (13)      |
| <b>urde</b><br>'zerria'                                   | «Trimestrearen txostena nahi du, seguraski, eta epea bost egun barru amaitu baino lehenago eskatu dit <b>urde</b> horek –hausnartu zuen Edek.»                       | (14)      |
| <b>urrikalkiro</b><br>'urrikia sentituz, errukituz'       | «Begi heze horiek <b>urrikalkior</b> begiratu zioten, kezka handia hadieraziz.»  | (52)      |
| <b>uzta</b><br>'laboreak biltzearen ekintza'              | «...hasierako usain sarkorrari <b>uzta</b> aurreko garagarraren usaina zerraion eta segundu batzuk geroxeago desagertua zen.»  | (52)      |
| <b>xalo</b><br>'handikeriarik gabea'                      | « <b>Xaloa</b> da gero! –irazkindu zion Edek neskari.»   | (90)      |
| <b>xerofilo</b><br>'ur urritan bizitzeko gai dena'        | «...horia nagusitzen zen pixkanaka, landaretza eskasagoa eta <b>xerofiloa</b> ikusten zuten, noizbehinka zenbait kaktus kozkortu baizik ez zen azaltzen.»            | (70)      |
| <b>xixkatu</b><br>'maltxurkeriaz lapurtu'                 | «Unibertsitateari animalia bat <b>xixkatzea</b> ez da uste duzun bezain erraza Ed...»  | (21)      |
| <b>zainzuri</b><br>'frantsesporrua, esparragua'           | «Zer gura duzue, Martizeko <b>zainzuriak</b> won-tai saltsan ala AA-4*eko orburuak tomate zurian?»   | (71)      |
| <b>zargaldu</b><br>'asko argaldu'                         | «Militarraren aurpegi <b>zargaldu</b> eta hitsak, begi hondatuak zeuzkan, bizar beltz sarria ezpain handi eta haragitsuen inguruan.»                                 | (80)      |
| <b>zelatan</b><br>'espiatzen ibili'                       | «Hiritar susmagarriek hiru SJ6 zeuzkaten zelatan...»   | (32)      |
| <b>zerraion</b><br>'jarraitzen zion'                      | «...hasierako usain sarkorrari <b>uzta</b> aurreko garagarraren usaina <b>zerraion</b> eta segundu batzuk geroxeago desagertua zen.»                                 | (52)      |
| <b>zerusabai</b><br>'ortzean                              | «Bost astrogeltoki hiriburuko <b>zerusabaian</b> flotatzen zeuden eta haiei esker urteko ikuskari mirragarria gertu egongo zen.»                                     | (39)      |

| Hitza - Esanahia                                 | Testuingurua  | Orrialdea |
|--|---|-----------|
| <b>zezeldu</b><br>'hitzak zailtasunez ahoskatu'  | «Ederki asko azaldu duzu, lagun <b>–zezeldu</b> zuen izakiak.»  | (89)      |
| <b>ziega</b><br>'lurpeko gartzela'               | «Edozer susmagarririk topatuz gero gizabanakoa kapsulaturik Inteligentziaren <b>ziegetara</b> heltzen zen...»                                 | (104)     |
| <b>zingira</b><br>'urez estalitako sakonunea'    | «Arazorik beldurgarriena basamortua zeharkatzea eta <b>zingiretara</b> heltzea zen, azken honen erditik zegoen bidea hartu eta laga barik...» | (68)      |
| <b>zio</b><br>'arrazoia, zergatia'               | «Ez dago beldurtzeko <b>ziorik</b> –eten egin zuen Pellok atetik.»  | (55)      |
| <b>zizakatu</b><br>'hitzak zailtasunez ahoskatu' | «Zer? Zer? Kontxo! Pello zer da? <b>–zizakatu</b> zuen Edek.»   | (57)      |
| <b>zunda</b><br>'sakonera aztertzeke gailua'     | «...neuroiaren parekoa; horrek dena den, ez gintuzke engainatu behar, pentsamendu- <b>zunda</b> izugarri konplexua baita.»                    | (123)     |